

**1/2025 TXOSTENA, URTARRILAREN 16KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN
AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.**

**XEDEA: AGINDU-PROIEKTUA, BIGARREN LEHENDAKARiorde eta EKONOMIA,
LAN eta ENPLEGUKO SAILBURUARENA eta OGASUN eta FINANTZETAKO
SAILBURUARENA, EKONOMIA, LAN eta ENPLEGU SAILEKO KONTRATAZIO-
MAHAIEN OSAERA EZARTZEN DUENA.**

I.- AURREKARIAK.

2024ko abenduaren 17an, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Aholkularitza Juridikoak txosten-eskabidea egin zuen, bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren eta Ogasun eta Finantzetako sailburuaren agindu-proiektuari —Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko kontratazio-mahaien osaera ezartzen duenari— buruz.

Eskabidea Ondare eta Kontratazioko zuzendariari egin zitzaion, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen lehendakaria baita.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: AAAA_ORD_AY8221/24_03), honako agiri hauek agertzen dira:

- Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren eta Ogasun eta Finantzetako sailburuaren Aginduaren —Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko kontratazio-mahaien osaera ezartzen duenaren— zirriborroa.
- Agindu horren zirriborroaren justifikazio-memoria.
- Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena.



II.- ESKUMENA.

Txosten hau nahitaez eman behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a).2 artikuluan ezarritakoaren arabera; izan ere, agindu-proposamen honen bidez, kontratazio-mahai iraunkor bat edo hainbat kontratutarako eginkizunak izango dituen sortuko da.

III.- KONTRATAZIO-MAHAIEIEN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL) 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora, eta, 326. artikuluan, kontratazio-organoari laguntza emateko kide anitzeko organo gisa arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Lege horren azken xedapenetako lehenengoaren arabera, aipatutako 326. artikulua ez da oinarritzko legeria.

Uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubideari buruzkoak, 8. eta 9. artikuluetan arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Lehenengoa, kide anitzeko organo horiek eratzeko eta kideak izendatzeko arauak ezartzeko; bigarrena, berriz, haien eginkizunen norainokoa zehazteko.

8. artikulua oro har xedatzen duenez, kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute esleipen-prozedura irekietan, mugatuetan eta negoziatu publikitadedunetan, eta mahai hori izango da eskaintzak baloratzeko organo eskuduna. Horrez gain, lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez duten prozedura negoziatuetan, kontratazio-mahaia eratu edo ez aukeran izango du kontratazio-organoak. Kontratazio-organoak du mahaia osatuko duten pertsonak izendatzeko eskumena; salbuespen da Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria, haren titularrak izendatuko baitu.

Artikulu bereko 2. apartatuan, kontratazio-organorako laguntza-organo horiek eratzeko arauak finkatzen dira, eta ezartzen da kontratazio-mahaiak honako hauek osatuko



dituztela: lehendakari batek, idazkari-lanak egingo dituen pertsona batek eta, gutxienez, hiru kidek. Kide horietako bik, bestalde, nahitaez eginkizun hauek bete beharko dituzte hurrenez hurren: kontratazio-organoaren aholkularitza juridikoa eta aholkularitza teknikoa; gainera, kontu-hartzaile bat beharko da edo kontratazio-organoaren ekonomia-eta aurrekontu-kontrolaren eginkizuna esleituta duen pertsona bat. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ondasunak, azpiegitura teknologikoak eta zerbitzuak kontratatzen direnean, IKTen arloan eskumena duen Zuzendaritzako pertsona batek parte hartu beharko du kontratazio-mahaian, kontratazio-organo eskudunak izendatuta, zuzendaritza horren titulartasuna duenak proposatuta.

Kontratazio-organoak hala eskatuz gero, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari batek parte hartu ahal izango du laguntza-organo horretan.

Kontratazio-mahaiko kideak izendatzeari dagokionez, aipatutako 8. artikuluko 3. apartatuaren arabera, behin betiko izenda daitezke, edo berariaz ere bai, justu kontratu bakoitza adjudikatzeko. Ondoren zehazten denez, izendapena iraunkorra bada edo kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazio-arloan eskumena duen saileko titularraren eta dagokion saileko titularraren edo erakundea atxikita dagoen saileko titularraren agindu bateratuaren bidez ezarriko da haren osaera, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Horrez gain, kideen osaera eta identifikazioa kontratuaren administrazio-klausula zehatzen agirian adieraziko da beti, eta dagokion kontratazio-organoaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da epe honen barruan: kontratatzeko gaitasuna eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak kalifikatzeko bilera egin baino gutxienez hamar egun lehenago.

IV.- KONTRATAZIO-MAHAIK KONFIGURATZEA.

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuari jarraikiz, Eusko Jaurlaritzako sailak berregituratu eta sail bakoitzari esleitutako jardun-arloak eratu ziren, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailarenak barne (dekretu horretan zehaztu ziren haren funtzioak eta jardun-arloak).



Hala, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak 18/2024 Dekretuaren 7. artikuluan zehaztu ditu bere funtzioak eta jardun-arloak, eta, 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera, sail horri atxikitzen zaizkio hauek: «*Eustat-Euskal Estatistika Erakundea*» eta «*Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea*» organismo autonomoak, eta «*Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua*» zuzenbide pribatuko ente publikoa». Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren kasuan, adierazi behar da gaur egun erakunde autonomo gisa eratuta dagoela, baina aurreikusita dagoela zuzenbide pribatuko erakunde publiko bihurtzea eta «Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa» izena hartzea 2025eko lehen hilabeteetan, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen bosgarren eta seigarren xedapen gehigarrien arabera.

Bestalde, azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri du eta, honenbestez, ezinbestekoa da sail horretako kontratazio-organoetarako laguntza-organoak berriz eratzea. 2.2 artikuluan, egitura orokorrari heltzen dio eta organo nagusiak zehazten ditu, bereziki Lan eta Enplegu Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuarekin —aurrekoarekin— alderatuta aldeak izanik.

Arestian adierazitakoari jarraikiz, ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren eta azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren bidez Eusko Jaurlaritzako sailak berregituratu direnez, xedapen berri bat ezinbestekoa da kontratazio-mahaien osaera eguneratzeko, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren kontratazio-organoari laguntze aldera. Ildo beretik, agindu-proiektuari erantsitako justifikazio-memorian adierazten da sail horretako mahaiaren osaera egokitu egin behar dela, mahaiaren eraketa arindu eta errazte aldera.

Era berean, aipatutako 323/2024 Dekretuaren 6.1 j) artikuluan agintzen denez, Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio «*Kontratuen arloko aholkuak eta informazioa eman eta espedienteak eta gorabeherak izapidetzea, bai eta kontratazioaren arloko errekurtsio arruntan eta apartekoen txostenak egitea ere, kontratazio-organoarentzat, organo sustatzaileentzat eta kontratazio-mahaiarentzat*».

Eta aipatutako 6. artikulua bigarren apartatuan jasotzen da Zerbitzu Zuzendaritzako titularra dela saileko kontratazio-organoa; organo eskuduna da; era berean, entitate bati



prestazio jakin bat egitea enkargatzeko xedea duten negozio juridikoak sinatzeko. Horretarako, baina, entitateek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baliabide propioaren eta zerbitzu teknikoaren izaera izan behar dute, sektore publikoko kontratazioa erregulatzen duen araudian ezarritakoari jarraikiz betiere.

V.- AGINDU-PROIEKTUA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari eskatu zaion txostenean aztergai den agindu-proiektuaren bidez, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko kontratazio-mahaien osaera iraunkorra ezarri nahi da.

Agindu-proiektuak azalpen-zati bat, 4 artikulua, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat biltzen ditu. Proiektu horrek egokiro errespetatzen ditu modu iraunkorren edo zenbait kontratutarako eginkizunak betetzeko eraturako kontratazio-mahaietako kideak izendatzeko arau-lerruna eta organo eskudunak, bat etorrita Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikuluan eskatutakoarekin.

Organoen adierazpena argiagoa izan dadin, alde batetik, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikulua bigarren paragrafoaren adierazpenari hobeto egokitzeko, Aginduaren izenburua hau izatea proposatzen da: «*Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren eta Ogasun eta Finantzetako sailburuaren Agindua, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko kontratazio-mahaien osaera ezartzen duena*».

Proiektu horren 1. artikulua ezartzen denez, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko kontratazio-organoei kontratazio-mahai baten laguntza izango dute esleipen-prozedura irekietan, mugatuetan eta negoziatu publizitadedunetan. Mahai horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluko eginkizunak beteko ditu.



Halaber, 1.1 artikulua a) letraren lehenengo paragrafoan, kontratazioa eskatu duen zuzendaritzaren titularrari esleitzen zaio kontratazio-mahaiko lehendakaria, eta kargua hutsik badago, titularra kanpoan edo gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, sailaren Zerbitzu Zuzendaritzari atxikitako Aholkularitza Juridikoko arduradunak ordezkatu du.

Haren bigarren paragrafoan ezartzen denez, Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari atxikitako Aholkularitza Juridikoaren arduraduna izango da lehendakaria, baldin eta kontratuaren xedea Zerbitzu Zuzendaritzaren eskumeneko gaiak badira. Postua hutsik dagoenean, arduraduna bertan ez dagoenean edota gaixorik dagoenean, edo legezko beste arrazoiren bat izanez gero, Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari atxikitako Aholkularitza Juridikoko pertsona juridiko batek ordezkatu du.

Kontratazio-mahaiko kideei dagokienez, agindu-proiektuaren 1. artikuluko b) letraren bigarren apartatua Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria aipatzen da. Kide hori «kontu-hartzailea» da —uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikulua 2. apartatuko lehenengo paragrafoaren azken tartekian aipatzen da—, eta hark betetzen du ekonomia- eta aurrekontu kontrol-funtzioa.

Horrez gainera, agindu-proiektuaren 1. artikulua b) letraren hirugarren apartatua honela idaztea proposatzen da, indarreko araudira egokitu dadin: *«Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) alorrean eskumenak dituen Zuzendaritzaren ordezkari bat, Zuzendaritza hartako titularrak proposatua eta kontratazio-organoak izendatua. Pertsona horrek IKTen arloko ondasunak, azpiegiturak eta zerbitzuak kontratatzeke espedienteetan jardungo du».*

1. artikuluko c) letran, idazkari-mahaikide aholkulari juridikoaren figura jasotzen da: Zuzenbideko gradu- edo lizentziatu-titulua duen teknikari bat, hain justu. Zerbitzu Zuzendaritzaren Kontratazio Zerbitzuari atxikita egongo da eta kontratazio-organoak izendatuko du, organo horren aholkulari juridikoa izango da, eta kontratazio-mahaiaren idazkaria, hitza eta botoa duela.

Agindu-proiektuaren 3. artikulua idazketa hau proposatzen da, indarreko araudira egokitzeko: *«Nolanahi ere, nola osatu den eta kideak nor diren adieraziko da*



kontratuaren administrazio-klausula zehatzen pleguan, eta kasuan kasuko kontratazio-organoaren kontratatzailearen profileen argitaratuko da, kontratuak egiteko gaitasuna duela egiaztatzeko dokumentazioa kalifikatzeko bilera egin baino hamar egun lehenago gutxienez eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen dituela kalifikatu baino hamar egun baino lehen».

Azkenik, agindu-proiektuaren xedapen indargabetzailean ezartzen denez, indargabetuta geratzen da lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2020ko azaroaren 26ko Aginduaren 1. artikulua; Agindu horren medioz Lan eta Enplegu Sailaren, Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea erakunde autonomoaren eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren kontratazio-mahaien osaera ezartzen da. Horrenbestez, agindu-proiektuak indarrean mantendu nahi ditu 2020ko azaroaren 26ko Aginduaren 2. eta 3. artikulua, Osalan eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoei buruzkoak, harik eta Lanbide zuzenbide pribatuko erakunde publiko bihurtzen den arte.

Era berean, agindu-proiektuan aipatzen ez den heinean, Batzorde honek proposatzen du Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 1999ko maiatzaren 14ko Aginduaren indarraldiari buruzko xedapenen bat sartzea; Agindu horren bidez, Euskal Estatistika Erakundea (Eustat) erakunde autonomoaren kontratazio-espedienteetarako kontratazio-mahaia ezartzen da, eta gaur egun Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxikita dago erakunde hori.

Azaldutakoagatik, **ALDEKO TXOSTENA** ematen diogu Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren eta Ogasun eta Finantzetako sailburuaren Aginduaren —Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko kontratazio-mahaien osaera ezartzen duenaren— proiektuari, betiere haren edukia txosten honetako jarraibide eta gomendioetara egokitzen bada.